

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2018ko abenduaren 1etik 7rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2018/12/03

- Ebazpena, 2018ko azaroaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez zuzentzen diren 2018ko abuztuaren 1ekoaren akatsak, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen diren irakaskuntza pribatuko enpresetako VI. hitzarmen kolektiboko 2018. urterako irakasleen ordezkio ordainketen soldata-taulak. 16489 xedapena - 2 or.

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2018/12/01

- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA. - Airearen kutsadura.** Akats zuzenketa, urriaren 29ko TEC/1171/2018 Aginduarena, zeinaren bidez arautzen den konbustio-instalazio handien (KIH) informazioa, kontrola, jarraipena eta ebaluazioa. 16383 xedapena - 1 or.

2018/12/03

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. - Klase pasiboak.** - 1413/2018 Errege Dekretua, abenduaren 2koa, zeinaren bidez garatzen diren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorren aurreikuspenak Estatuko Klase Pasiboen Erregimeneko alargunen pentsioen alorrean. 16432 xedapena - 5 or.

2018/12/04

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Gizarte Segurantza.** - TMS/1289/2018 Agindua, azaroaren 29koa, zeinaren bidez ezartzen diren 2018ko ekitaldirako kontingentzia arruntengatiko Gizarte Segurantzaren kotizazio-oinarri arautuak, Gizarte Segurantzaren Ikatz-meatzaritzako erregimen berezian. 16528 xedapena - 14 or.

- **EKONOMIA ETA ENPRESA MINISTERIOA. - Aseguruak.**

- 2018ko urriaren 31ko Ebazpena, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Presidentetzarena, zeinaren bidez onesten diren Ingurumen-kalteen konpentsazio funtserako errekar-gu-ereduak eta ezartzen den aitopen- eta sarrera-prozedura. 16529 xedapena - 4 or.
- 2018ko urriaren 31ko Ebazpena, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Presidentetzarena, zeinaren bidez ezartzen diren aseguru entitateek bildu dituzten errekar-guei dagozkien epeak eta aitopen- eta sarrera-prozedura. 16530 xedapena - 10 or.

2018/12/05

- **OGASUN MINISTERIOA. - Aitopen katastrala.** - HAC/1293/2018 Agindua, azaroaren 19koa, zeinaren bidez onesten den ondasun higiezinaren alterazio katastralen aitopen ereduak, eta zehazten den zenbait jakinarazpen katastral izapidetzeko nahitaezko informazio grafiko eta alfanumerikoa. 16616 xedapena- 14 or.
- **OGASUN MINISTERIOA. - Errepideak.** - 1411/2018 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, zeinaren bidez aldatzen den Estatuko Errepide-sarearen katalogoa. 16617 xedapena - 2 or.
- **LURRALDE POLITIKA ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. - Euskal Autonomia Erkidegoa.**
 - **Funtzio eta zerbitzuen transferentzia.** - 1414/2018 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, irailaren 26ko 2769/1980 Errege Dekretuaren bidez errepideen alorrean Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruzkoa. 16618 xedapena - 5 or.
 - **Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura dauden langileak.** - 2018ko azaroaren 22ko Ebazpena, Funtzio Publikoaren Estatuko Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den aitatasun baimena hamasei astera luzatzeko eta 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen ehun eta berrogeita laugarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitako orduen poltsa aplikatzeko akordioa. 16619 xedapena - 4 or.

2018/12/06

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.**

- **Hauteskundeen araubide orokorra.** - 2/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, zeinaren bidez aldatzen den ekainaren 19ko 5/1986 Lege Organikoa, Hauteskundeen Araubide Orokorrarena, desgaitasuna duten pertsona guztien sufragio eskubidea bermatzeko. 16672 xedapena - 3 or.
- **Izaera pertsonaleko datuak.** - 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. 16673 xedapena - 70 or.
- **Ingurumena. Mendiak. Airearen kutsadura.** - 9/2018 Legea, abenduaren 5koa, zeinaren bidez aldatzen diren 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa, 21/2015 Legea, uztailaren 20koa, zeinaren bidez aldatzen den 43/2003 Legea, azaroaren 21koa, mendiei buruzkoa, eta 1/2005 Legea, martxoaren 9koa, zeinaren bidez arautzen den berotegi efektuko gasak aireratzeko eskubideen salerosketa-erregimena. 16674 xedapena - 48 or.

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena.** - Ebazpena, 2018ko azaroaren 29koa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, zeinaren bidez baimena ematen zaien kuoten ordainketa atzeratzeko 2018ko maiatzetik abuztura Valentziako Erkidegoan txingorrarekin eta harriabarrekin egon ziren trumoi-ekaitz handiek kaltetutako enpresariei zein norbere kontuko langileei edo autonomoei. 16677 xedapena - 2 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2018/12/03

- **SEGURTASUN SAILA.** - AGINDUA, 2018ko azaroaren 22koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita nola jakinarazi behar zaizkion Ertzaintzari urruneko kontrolaren bidez gidatutako aireontzien (RPA) eragiketak, hiri, herri edo biztanleguneetako eraikin multzoen gainetik edo aire zabalean elkartutako pertsona taldeen gainetik ibiltzen direnean. 5924 xedapena 6 or.

2018/12/04

- **SEGURTASUN SAILA.** -AGINDUA, 2018ko azaroaren 20koa, Segurtasuneko sailburuarena, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzen dituen eta Larrialdietan Koordinatuta Esku hartzeko Zerbitzua sortzen duen agindua laugarren aldiz aldatzekoa. 5959 xedapena - 6 or.

2018/12/05

- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.** - 174/2018 DEKRETUA, abenduaren 3koa, errepideen alorrean irailaren 26ko 2769/1980 Errege Dekretuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruz Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak egindako Akordioa onartzen duena. 5979 xedapena - 6 or.
- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.** - 165/2018 DEKRETUA, azaroaren 20koa, langilerik gabeko instalazioek ibilgailuentzako erregaiak eta motor-erregaiak txikizka saltzeko bete behar dituzten eskakizunei buruzkoa. 5980 xedapena - 32 or.

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2018/12/05

- **ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2018 Zerga premiazko araugintzako dekretua, azaroaren 27koa. Onestea gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzte balioaren gaineko zerga. 4431 xedapena - 4 or.
- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 59/2018 Foru dekretua, azaroaren 27koa. Onespena ematea Arabako zerga sistemako zenbait arautegitan aldaketak egiteari. 4432 xedapena - 3 or.

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): **Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO